



Anastasia, etxe-
balkoian, berak egindako
koilara soinean duela.

“Baserriko ikasketadun” artista,

Anastasia Leunda

Leire Goñi

Guraizeak, haria, txotxak, hainbat hazi, artilea, eta batez ere, imajinazioa eta eskuak ditu lanabes. Horiekin sortutako piezak hainbat artisau azoketako harribitxi bilakatu dira. Baina, lanak baino gehiago, sortzaileak berak du meriturik handien: Anastasia Leundak, alegia.

Duela 82 urte jaio zen Anastasia Leunda, Albizturren. Baina orain dela ia 40 urte inguru etorri zen Hernanira bizitzera senarra eta haurrekin, hauek eskolatu ahal izateko. Bizitzan zehar hainbat tokitan lan egin badu ere, ofizio baino gehiago, afizio bilakatu dena egiten jarraitzen du gaur egun ere. “Entretenezko eta ondo pasatzen” duelako egiten duela dio, baina konturatu gabe, “meritu eta garrantzia handiko lana” egin duela onartzen du. Artilearekin mota guztietako jantziak egiteko gai da, eta hainbat hazirekin mila formako bitxiak egiteko adina imajinazio ere badu: “Baserriko ikasketak besterik ez ditut. Baina behin zerbait egitea lortzean, beste zerbait probatzeko irrika izaten dut, eta arian-

arian nire diseinuak sortzen ditut. Aita ere artista ederra zen, eta zerbait izango dut nik ere!”

Denbora-pasa gisa hasi zen lan horiek guztiak egiten, eta pixkanaka, pieza dezente bildutakoan, horiek erakutsi edota saltzeko erabakia hartu zuen. Hala egin zen ezagun Anastasia. Izan ere, hainbat herritan ospatutako artisau azoketan ikusi ahal izan du askok, berak egindako artilezko arropa eta ezkurrez egindako bitxiak soinean.

Erretiroa hartzea pasatu izan zaio burutik, “edadean aurrera” doala eta. Hala ere, toki askotatik deitzen jarraitzen diote, egindako lanak erakutsi ditzan edota

bere tekniken berri eman dezan. Horrelako eskariari muzin egiterik ez dagoela eta, aurrera jarraitzea erabaki du, ahal den bitartean: “Egiten dudana meritua handiko lana da! Ez du beste inork horrelakorik egiteko abileziarik! Jendeak hori estimatzen badaki, eta interesa erakusten jarraitzen badute, nik erantzuten jarraituko dut. Lan polita da, eta ez da galtzen utzi behar!”

**Egiten dudana meritua handiko lana da!
Ez du beste inork horrelakorik egiteko abileziarik!**



Artilearekin egindako kulero eta jertsea.



Anastasia, bere senarrarekin, orain dela urte batzuk, Hernaniko Artisau Azokan.

ARTILETIK HARIRA, 10 CM.

Senarrak erretiroa hartutakoan hasi omen zen Anastasia artilearekin lanean. Senarrak Hernaniko Portu auzoan baratza txiki bat zuen, eta han pasatzen omen zuen eguna, lanean entretenituta. Anastasiak berriz, denbora libre dezente zuela eta, inguruko agure bati laguntzen eta konpainia egiten pasatzen omen zuen denbora. *"Kintana esaten zioten. Zahar xamar zegoen eta jende askok burla egiten zion. Baratzetik gutxi ateratzen zuen, eta lortutako hori ardiekin xahutzen zuen. Horregatik makina bat errieta izaten zituen andrearekin".*

Horrelaxe oroitzen du Anastasiak artilearekin jantziak egitera animatu zuen gizona. Bi txabola omen zituen Kintanak, bata, bereak zituen 45 ardientzako, eta bestea, artilea gordetzeko. Tarteka han egiten omen zuen lo, bi urtetan zehar moztu eta pilatutako artilearekin batean.

Orain dela 10 urteko kontua dela kalkulaten du Anastasiak. *"Hotz handia egiten zuen, izotza. Kintanari bisitan joan nintzaion, eta fabore bat egiteko eskatu zidan. Hotza zuela eta, hartzeko nahi beste artile eta egiteko galtzerdi pare bat. Ni galtzerdiak josteko gai banintzen, baina ez artiletik haria*

ateratzeko! Hala ere, ezetz ez esate-agatik, artile pixka bat hartuta itzuli nintzen etxera".

Orduan, senarrak eman zion sorpresa. Artiletik haria ateratzen ez zekiela eta, bere kezka agertu zion senarrari. Honek berriz, berak bazekiela, gerra denboran makina bat aldiz aritu zela horretan. Hala, bazkalostean baratzetik tomateak lotzeko makila bat hartu, zulo bat egin, bertan artilea lotu eta bueltaka-bueltaka haria ateratzen hasi zen. Oraindik ederki gogoratzen da Anastasia horretaz: *"10 cm-ko tartea besterik ez zen behar bueltan-bueltan haria lortzeko! 10 cm besterik ez!"*

10 cm-ko tartea besterik ez zen behar bueltan-bueltan haria lortzeko!

Galtzerdi pareia izan zen beraz, artilearekin egindako lehen lana. Baina ordu-rako Kintana hil egin zen. Barruko har urduria esna zuen ordea, eta paseatu bitartean haria egiten jarraitu zuen Anastasiak. Eta hari hori aprobetxatu egin behar zela eta, jantziak josteari ekin zion: jertseak, soinekoak, txapelak, galtzak, kulero eta galtzontziloak, oinetakoak... Pieza dezente egin zituen

pixkanaka, eta pila handia bildutakoan, erakustea erabaki zuen.

ETXETIK MERKATURA.

Behin, etxean artilezko nahikoa arropa zuela eta, batzuk poltsan sartu eta Donostiara abiatu zen Anastasia. Bretxan dagoen dantzari eta baserritar arropa saltzen duten dendara jo zuen. Bertako saltzaileari artilezko piezak erakutsi eta izugarri gustatu omen zitzaizkion. Jertse bat erosi nahi izan zion, semearentzako, eta bote-prontoan, 8.000 pezeta balio zuela erantzun zion Anastasiak. Dendariak berriz, erosi.

Pixkanaka, hainbat tokitan saldu zituen jantziak Anastasiak. Ezagun egiten ere hasi zen, eta artisau azoketara joateko ere deika hasi zitzaizkion. Hainbat herritan izana da dagoeneko, arropak saltzen edo erakusten.

Senarra gaixotzean berriz, atzera eta aurrera ibiltzea ezinezko egin zitzaion, eta etxean gordetako jantziekin zerbait egin behar zuela pentsatu zuen: *"Meritu handia du egiten dudana lanak. Artileaz zerbait dakienak berehala antzemango du. Orain makina asko daude, baina horiek ere ez dakite nik bezala artilea lantzen! Horrexegatik, Hernaniko Udalarri bi kutxa bete jantzi oparitu nizkion, aurrerantzean jendeari nire lanak erakutsi ahal izateko".*

BITXIGINTZA.

Denbora bat gaixorik pasa ostean, senarra hil egin zitzaion Anastasiari. Orduan, munduan ez zitzaiola ezer gertatzen pentsatzen zuen, baina laster ateratzen zituen berriro ere indarrak. *"Orain gutxi, igogailua egiteko obrak egiten hasitakoan bota zuten tren-geltoki ondoan zegoen ezkur-ondoa. Agurtzera ere joan nintzen, bizia berak eman zidan eta. Izan ere, han paseoa nentzilen batean, lurrean ezkurak ikusi eta jaso egin nituen. Horiekin hasi nintzen bitxiak egiten".*

**Tren-geltoki ondoko
ezkur-ondoa agurtzera
joan nintzen bota zute-
nean, berak eman baitzi-
dan bizia**


Ezkur haiek jaso eta etxeraterakoan, lehen koilarea egin zuen. Gaztetan ere, egin izan zituen bitxiak: *"Ondoko baserrietan diru gehixeago zutenak izaten ziren, eta festetan eta horrelakotan bitxi ederrekin azaltzen ziren. Gu ez ginen gutxiago, eta dirurik ezean, gure koilare eta eskumuturrekoak egiten genituen!".*

Entretanimendu berri bat aurkitu zuen horrela. Egunero, paseo bat ematera ateratzen da orain ere Anastasia. Dagoeneko ezagutzen ditu behar dituen landareak, eta non aurkitu ere badaki. Ezkurra, sagarra, eukalipto, pikuak... erabiltzen ditu. Horien haziak jaso, lehortzen utzi eta mota guztietako bitxiak egiten ditu gero. Inori balio ez dioten haziak balio diotela esaten du. Bakoitzak lehortzean hartuko duen kolorea ere aldeztu aurretik jakiten du jada. Horrela, koilareak eta eskumuturrekoak egiteaz gain, belarritakoak edota paparrekokoak egiten ere aritzen da.

Bitxiak egiteko sukaldean jarritako
"tailerra".



Anastasiak egindako hainbat belarritako eta koilare.



ONDARE BALIOTSUA.

Lanak uztea pentsatu izan omen du Anastasiak, baina jendeak etengabe deitzen diola eta, ez du aukerarik izan. Jantziak eta bitxiak egiteari utzi beharrean, berrikuntzak egiten aritzen omen da gaur egun. Izan ere, jendearen eskariaren arabera sortzen ditu sarri bere piezak.

Artilearekin egindako jantziak gaur egungo modara egokitu ditu, adibidez. Artzain frantziar batek haria ekarri eta eskariak egiten dizkio, gero Frantziako azokatan edo dendetan saltzeko. Horrela, moda modako jantziak egiten ditu gaur egun Anastasiak: kuleroak, galtzontziloak, tangak edota broma gisa oparitzeko kondoia.

Bestalde, eskatutakoaren arabera ere aritzen da lanean. Neurria eta nahi denaren argazkia emanda, norberaren gustura egindako jantziak egiten ditu.

Horrez gain, Oiartzungo Emakume Taldearekin parte hartzen hasi da orain gutxi. Sendabelarrak erabiliz botikak, xaboiak, kandelak... egiten dituzte artisauek. Beste motatako ikastaroak ere eskaintzen dituzte, eta Anastasiari haria egiteko teknika irakasteko eskatu diote. Horrela, tarteka-marteka hara eta hona ibiltzen da Anastasia, bere ja-kinduria zabaltzen.

Bitxiak egiten ere jarraitzen du, jendea-ri gustatu egiten baitzaizkio, eta bera entretenitu egiten da.

Urte hauetan guztietan lan handia egin du eta ez du guztia galtzea nahi. Hernaniko Udalarari oparitutako artilezko lanekin erakusketak egitea gustatzen zaio, jendearentzako eskuragarri egon daitezen. Dagoeneko hainbat herritan jarri dituzte ikusgai artilezko jantzi horiek.

Bitxiei dagokienez, badu beste kapritxo bat: *"Hiltzen naizenean, mezatik ateratzen direnei nik egindako bitxiak oparitzea gustatuko litzaidake. Hernaniarrentzako opari gisa utzi nahi dut". ■*

**Hiltzen naizenean, nik
egindako bitxiak
hernaniarrei oparitzea
gustatuko litzaidake**